Policy Briefings

BASQUE CENTRE FOR CLIMATE CHANGE
Klima Aldaketa Ikergai

PB 2015/ 04/ www.bc3research.org

INGURUMEN JUSTIZIA: BALIABIDE NATURALEN KONTSERBAZIORAKO TRESNA

Eneko Garmendia[1] (BC3), Unai Pascual (BC3), Jacob Phelps (CIFOR)

1 — Sarrera

Kontsumo- eta ekoizpen-eredu iraunkorrago baterantz jo behar dugun honetan, biodibertsitatea eta gizadiari eusten dioten ekosistema-zerbitzuak (EZ) kontserbatzea da gure gizartearen erronkarik handienetako bat.

Besteak beste eremu babestuen eta komunitateen kontserbaziorako ohiko estrategien ondoan tresna berriak sortu dira, horien artean baliabide naturalen kontserbazioa eta kudeaketa iraunkorra suspertzeko Ingurumen Zerbitzuen Ordainketak (IZO). Horien helburua EZen kontserbazioa suspertzea da, baliabide horien "hornitzaileen" eta onuradunen arteko ordainketa-mekanismoak sortuz. Mekanismo horiek ikuspegi ekonomikotik betiko "agindu eta kontrolatu" mekanismoak baino efizienteagoak dira eta oso azkar ari dira hedatzen, besteak beste, karbono bahiketa suspertzeko, higadura geldiarazteko, uraren kalitatea hobetzeko edo nekazaritza-biodibertsitatea babesteko (Ferraro and Kiss 2002).

Tresna horiek teorian abantailak badituzte ere, IZOren efizientziari buruzko ikuskera idealizatuak errealitate konplexuago batekin egiten du topo, non alderdi sozial eta politikoek, eta horien artean Ingurumen Justiziak, gero eta eginkizun garrantzitsuagoa betetzen duten kontserbazioaren esparruan. *BioScience* aldizkarian berriki argitaratutako artikulu batean, eta BC3ko ikertzaileek zuzenduta (ikus Pascual *et al.*, 2014), aztertu genuen Ingurumen Justiziak nola eragiten duen ekosistemen kontserbaziorako tresnen efizientzian eta eraginkortasunean, eta, horretarako, bibliografiaren berrikuspen sakon batean eta kontinente ezberdinetako kasu-azterketan oinarritu ginen.

Iraganean kontserbazio- helburuak alderdi sozialen kontura lortu izan badira ere (esate baterako, erabiltzaileak gune babestuetatik kanpora utzi dira, tokian tokiko komunitateak erabakiak hartzeko prozesuetatik baztertu dira), azterlanak jasotzen duen ebidentzia enpiriko zabalak erakusten du Ingurumen Justiziak gero eta garrantzi handiagoa duela baliabide naturalen kontserbazioan. Jarraian ikusiko dugun bezala, alderdi etikoak alde batera utzita, Ingurumen Justizia ingurumen-helburu iraunkorrak lortzeko tresna bat da.

Puntu Garrantzitsuak


- ***Ingurumen Justizia kontserbaziorako tresna bat da.***
- ***Ingurumen Justiziak oinarri dituen printzipioak ekitatea, hainbat balioren errekonozimendua eta erabaki-prozesu inklusiboak dira.***
- ***Ekitate soziala baliokoa da ekologiaren eraginkortasuna katalizatzeko.***
- ***Testuinguru sozialari jaramonik egiten ez dioten kontserbazio-neurriek kostu eta porrot egiteko arrisku handiagoa dute epe luzera.***

2 — Ingurumen Justiziaren dimentsio anitzak

Ingurumen Justiziaren ikuspegiak dimentsio anitz ditu (Schlosberg, 2004). Ingurumen Justiziaren dimentsio banatzaileak kontuan hartzen du kontserbaziorako esku-hartzeetatik eratorritako onuren eta zamen banaketa, maneiuaren kostu zuzenak eta baliabideak eskuratzeko murrizketek eragindako zeharkako kostuak barne direla. Era berean, erabakiak hartzearekin eta eragile sozialen balioak, identitate kulturalak eta eskubideak errekonozitzearekin zerikusia duten alderdi ez-materialak ere hartzen ditu bere baitan Ingurumen Justiziak. Horiek baldintzatu egiten dituzte prozesu politikoek eta testuinguru sozialak (esate baterako, botere-dinamikek, generoak eta heziketak), eta eragina dute dagozkien erabakiak hartzeko, besteen errekonozimendua lortzeko eta hartutako neurrien irabazi eta kostuen banaketa ekitatiboa lortzeko alderdi interesdunek duten gaitasunean. Ingurumen Justiziaren elementu horiek guztiek, aldi berean, baldintzatu egiten dituzte gizakien motibazioak eta jokaera eta erabakigarriak dira baliabide naturalen kontserbaziorako (ikus 1. irudia.).

Txosten hau Eneko Garmendia [1], Unai Pascual [1], Jacob Phelps [2] -k idatzi dute [BC3, Basque Centre for Climate Change][1], CIFOR[2]

Honela aipatua: "Garmendia, E.,Pascual, U. eta Phelps,J.,2015, "Ingurumen justizia: baliabide naturalen kontserbaziorako tresna", BC3 Policy Briefing Series 04-15" Basque Centre for Climate Change (BC3).Bilbo, España.



1. irudia. Ingurumen Justiziaren dimentsio anitzak. .

Ingurumen Justiziaren irizpideak baliabide naturalen kudeaketan integratzeko prozesua ilundu egin du efizientzia ekonomikoaren lehenespenak. Hortaz, IZOren defendatzaile nagusietako batzuen ustez ez dira nahastu behar ingurumen-helburuak eta helburu sozialak, azken horiek arriskuan jar baitezakete tresna hauen ingurumen-eraginkortasuna edo efizientzia ekonomikoa (Kinzig *et al.*, 2011). Ikuspegi horretatik kostu txikiagoa eraginda itxuraz eraginkorragoak diren ingurumen-zerbitzuen "hornitzaileak" lehenesten dira, eta horrek, esate baterako, lur jabe handiei egiten die mesede, IZOak jasotzen dituzten aldetik, jabe txikien kaltetan, azken batean garestiagotzat jotzen direlako eta errendimendu txiki samarrak dituztelako. Era berean, EZ komertzialenak lehenesten dira (adibidez, ura edo ikatza) merkatuan baliorik ez duten beste zerbitzu batzuen kaltetan (adibidez, kulturalak edo erlijiosoak). Beste sektore batzuetan bezala (adibidez, hezkuntzan, osasunean), testuinguru honetan onartzen da merkatua dela gobernantza-mekanismorik efizienteena.


Baliabide naturalen kudeaketa termino ekonomiko hutsetara murrizten duen ikuskera hau berez ez dator bat errealitatearekin. Ikuskera horren arabera baliabide naturalen kudeaketak eta erabilerak berezko dituzten alderdi sozial eta politikoek baldintzatu egiten dituzte kontserbaziorako ahaleginak. Esate baterako, deforestazioak eta basoen degradazioak eragindako karbono emisioak murrizteko Nazio Batuen babesean garatutako REDD+ moduko ekimenek nahitaez jaso behar dituzte euren programetan irizpide sozialak komunitate indigenen protesten ondorioz. Basoak kontserbatzeko Costa Ricako IZOren programa aitzindaria hasiera batean efizientzia ekonomikoari lotutako irizpideekin diseinatu zen, baina gaur egun ekitate-irizpideak jaso behar izan ditu sortutako ezberdintasunak zuzentzeko (Porras 2010). Ekuatoreko Socio Páramo programan landa eremuetako pobrezia-indizeak jaso dira kontserbaziorako lehenespenezko eremuak definitzeko (Bremer *et al.*, 2014).

3 — Ingurumen Justizia eta baliabide naturalen kontserbazioa

Aipatutako adibideek nolabait ere erakusten dute Ingurumen Justiziak gero eta garrantzi handiagoa duela baliabide naturalen planifikazioan eta kudeaketan. Hala ere, Ingurumen Justiziaren dimentsio guztiek hainbat bidetatik eta neurri ezberdinetan eragiten dute kontserbazioaren helburuetan, eta hori eztabaidarako gaia da akademikoen, profesionalen eta kudeatzaileen artean (esate baterako, Corbera eta Pascual, 2012).

Garatu dugun azterlanak (Pascual *et al.*, 2014) erakusten du Ingurumen Justiziak zein bide nagusitatik (banatzailea, errekonozimendua, parte-hartzea) sor ditzakeen kontserbaziorako tresnen eraginkortasunean eragina duten aukerak eta arriskuak (ikus 2. irudia). Azterlanak identifikatzen dituen kasuetan IZOak gai dira: behar-egoeran daudenei lagundu eta irabazien banaketa ekitatiboa egiteko (Bremer *et al.*, 2014); erabaki-prozesu inklusiboak sustatzeko; eta baliabideen tokian tokiko kudeaketa sendotzeko. Hala ere, hainbat adibidetan ikusten da kontserbaziorako tresnek eragin negatiboak izan dituztela ekitatean (Porras 2010). Horretan zerikusia izan dezakete eraginpeko aldeen errekonozimendurik ezak; erabakiak hartzean parte-hartze inklusiboari jarritako oztopoek; eta/edo eraginpeko biztanleriaren biziraupenerako beharrezko baliabideak eskuratzeko murrizketek. Gainera, inpaktu negatibo hauek areagotu egiten dira hautematen denean arriskuak itzulezinak edo konponezinak direla, esate baterako, antzinako eskubideak galdu izanaren eta komunitate arteko gatazken ondorioz. Beste kasu batzuetan, kontserbaziorako neurriek inpaktu ezberdinak eragiten dituzte. Esate baterako, karbono bahiketa sustatzeko pizgarriek hobetu ditzakete tokian tokiko

biztanleria-segmentu baten bizi-baldintzak, baina, aldi berean, irabazi horietatik kanpora utzi emakumeak eta lurrik gabeak (Corbera *et al.*, 2007).



2. irudia. Kontserbaziorako tresnen, Ingurumen Justiziaren eta emaitza ekologikoen arteko atzeraelikadura. Kontserbaziorako tresnek inpaktuak eragiten dituzte Ingurumen Justiziaren dimentsio banatzailean, errekonozimendu-dimentsioan eta prozeduraz-koan, eta horiek, aldi berean, mesede edo kalte egiten diete lortu nahi diren emaitza ekologikoei sortzen diren aukeren eta me-hatxuen bidez (Pascual *et al.*, egileetatik moldatua, 2014).

Paradoxikoki, ebidentzia enpiriko zabal batek erakusten digu Ingurumen (in)Justiziaren inpaktu hauek nola eragin dezaketen kontserbaziorako tresnen funtzionamenduan eta emaitzan (ikus gezi gorria eta berdea 2. irudian). Ikusten dugu, beraz, kontserbaziorako ekimenen exekuzioaren eta monitoreoaren gaineko tokian tokiko autonomia handiagoak esan nahi duela proiektuen legitimitate handiagoa eta emaitza ekologikoentzat mesedegarriak diren arau gehiago betetzea. Era berean, irabazien eta erabaki-prozesu inklusiboen banaketa ekitatiboak murriztu egiten dituzte ingurumenarentzat kalterako diren gatazka-egoerak. Berez, kontserbazio-programek arrakasta izateko ordainketen zenbatekoak baino gailentasun handiagoa izan dezakete faktore horiek. Ebidentziak, aldiz, erakusten du Ingurumen Justizian inpaktu negatiboa duten ekimenek arrisku-egoerak eragiten dituztela EZen kontserbaziorako. Injustizia-egoera horiek erreakzio negatiboak piztu ditzakete eta horrek, aldi berean, proiektuaren legitimitatea higatu dezake; bertan parte hartzeko prestasuna murriztu dezakete; eta hainbat gatazka eragin ditzakete gizartearen eta ekologiaren esparruetan, hain zuzen ere, lortu nahi diren emaitza ekologikoak hankaz gora jar ditzaketenak arauak ez beteta, sabotajeen eta protesten bidez eta kontratuak etenda.



Eskubide indigenen aldeko eta REDDen aurkako protestak Justizia Klimatikoaren aldeko Ekintza Egun Globalean, Durban, Hegoafrika (Argazkia: PhotoLangelle.org).

Luzera begira, atzeraelikadura negatiboak ekonomiaren efizientzia galtzea ere ekar dezake, hain zuzen ere, kostu gehigarrien ondorioz. Horixe gertatu da, berez, REDD+ programaren baitan hainbat ekimenekin. Ingurumen Justiziaren aurkako mehatxuek indigena eta nekazarien komunitateen erresistentzia eta ingurumen justiziaren aldeko mugimenduak eragin dituzte bai tokian tokian bai nazioartean, eta horrek geldotu egin ditu, kasu batzuetan baita geldiarazi ere, hainbat eta hainbat proiektu (ikus argazkia).

ONDORIOAK

Azterlan honetan ikusten da Ingurumen Justiziari lotutako irizpideak kontuan hartzen ez dituzten kontserbaziorako tresnek porrot egiteko arrisku handiagoa dutela, ekologian kontrako inpaktuak eragin ditzaketela eta luzera begira efizientzia gal dezaketela. Aitzitik, hasiera-hasieratik kontserbaziorako politiken ardatz moduan Ingurumen Justizia integratzen duten ikuspegiek aukera handiagoak izango dituzte kontserbazioaren eta eraginpeko pertsonen ongizatearen arteko atzeraelikadura-fluxu positiboak kapitalizatzeko, eta horrekin gatazka egoerak murriztuko dira eta lortu nahi diren helburu ekologikoak hobetuko dira, eta, gainera, hasiera batean ez dute kostu handiagoa izango.

Horregatik, gure ustez Ingurumen Justiziari lotutako alderdiak integratu behar dira kontserbaziorako tresna eta ekimenetan eta, gainera, hori babesteko behar diren baliabideak ezarri behar dira. Era horretako ikuspegi integratzaile bati esker kontserbaziorako neurrien inplementazioak talde sozial ezberdinen arteko harremanetan, eta horien eta ingurumenaren artean, eragiten dituzten alterazioak ikusi ahal izango lirateke. Era berean, eraginpeko alderdiak ahaldundu behar lirateke bere aukerak baloratu ditzaten eta erabakiak hartzen lagundu dezaten Aurreko Adostasun Libre eta Informatuaren printzipioei jarraituz. Horrek esan nahiko luke naturarekin lotutako identitate eta balioen dibertsitatearen errekonozimendu handiagoa izatea eta prozesu parte-hartzaile inklusiboak erabakiak hartzean integratzea. Era berean, zenbait kasutan kontserbazio-helburuak lor daitezke Ingurumen Justiziarekin zerikusia duten alderdiak kontuan hartu gabe, esate baterako bertako biztanleak mantenurik gabe uzten dituzten Eremu Babestuetan, baina kasu horiek ikuspegi kritikotik ebaluatu behar lirateke irizpide ekonomikoen aurretik irizpide moralak edo arautzaileak jartzeko.

Azkenik, gure ustez gizarte-zientzien eta ingurumen-zientzien arteko lankidetza handiagoa behar da helburu ekologikoak eta Ingurumen Justiziaren irizpidea eta efizientzia ekonomikoa bateratzeko dauden oztopoak eta sinergiak hobeto ulertzeko. Horrek eskatzen du, batetik, gehiago jakitea eta, bestetik, diziplinen arteko ikerketarako eremua zabaltzea eta esparru politikoaren eta zientifikoaren arteko elkarreraginak sendotzea, hain zuzen ere, hobeto ulertu ahal izateko kontserbaziorako esku-hartzeetan nola eragiten duten gizakiaren jokabideek eta gizartean dauden arauek, bai eta nola baldintzatzen dituzten ere.

ESKER EMATEA:

Lan hau Pascual *et. al.*, 2014 artikuluan dago oinarrituta. Artikulua *BioSicience* aldizkarian argitaratu zen eta kontserbazioari buruzko 2014ko eragin handieneko 20 artikuluen artean katalogatu zuen Faculty of 1000ek: http://f1000.com/prime/720916606. U. Pascual, J. Phelps eta E. Garmendiaz gainera, K. Brown, E. Corbera, A. Martin, E. Gómez-Baggethun R. Muradianek ere hartu dute parte. Azterlana Europar Batasunak finantzatu du EcoFINDERS proiektuaren bidez (FP7-264465)

ERREFERENTZIAK:

Bremer LL, Farley KA, Lopez-Carr D. 2014 What factors influence participation in payment for ecosystem services programs? An evaluation of Ecuador's SocioPáramo program. *Land Use Policy 36*: 122–133.

Corbera E, Brown K, Adger WN. 2007 The equity and legitimacy of markets for ecosystem services. *Development and Change* 38: 587–613.

Corbera E, Pascual U. 2012. Ecosystem services: Heed social goals. *Science 335*: 655–656.

Ferraro PJ, Kiss A. 2002 Direct payments to conserve biodiversity. *Science 298*: 1718–1719.

Kinzig AP, Perrings, C, Chapin FS III, *et al.*, 2011. Paying for ecosystem services—Promise and peril. *Science 334*: 603–604.

Pascual, U., Phelps, J., Garmendia, E., *et al.*, 2014 Social Equity Matters in Payments for Ecosystem Services. *BioScience 64 (11)*:1027-1036.

Porras I. 2010. Fair and green? Social impacts of payments for environmental services in Costa Rica. International Institute for Environment and Development.

Schlosberg, D. 2004 Reconceiving environmental justice: Global movements and political theories', *Environmental Politics 13 (3)*: 517–40.

BASQUE CENTRE
FOR CLIMATE CHANGE
Klima Aldaketa Ikergai

BC3 Policy Briefing Series-en argitalpen hau Eneko Garmendia, Unai Pascual eta Jacob Phelps-en lana izan da. Txosten honetan adierazitako iritziak txosten-egileen erantzukizuna dira, eta ez dute zertan adierazi Basque Centre for Climate Change -Klima Aldaketa Ikergai (BC3) zentroaren jarrera. Txosten hau BITEZek euskaratu du: ***www.bitez.com***

BC3 Policy Briefings txostenak Interneten eskuragarri daude:
http://www.bc3research.org/policybriefings
BC3 Policy Briefings txostenei buruzko kontsultetarako:
Email: ***mikel.gonzalez@bc3research.org*** *edo* ***elena.ojea@bc3research.org***